

**«UKANAUTO» IBILGAILUAK PARTEKATZEKO ZERBITZUAREN PREZIO PUBLIKOA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA****I. ZERGAGAIA****1. artikulua**

1. Zergapeko egitatea da Uribe Kostako Zerbitzuen Mankomunitateko ibilgailuen erabilera partekatuaren bidez erabiltzaileen eskura jarritako ibilgailuak erabiltzea, zerbitzuan alta emanda egotea eta erabilerari dagokion prezioa kontuan hartuta, erabileran bertan eta kilometrajearen kostuan zatituta.

2. Ordenantza honen zergapeko egitatea da, halaber, erabiltzaile-txartel berriak egitea, erabiltzaileak txartela hondatu edo galdu badu.

3. Azkenik, ibilgailuen erabilerari dagokion zati gisa, ordenantza honen zergapeko egitatea da erabiltzaileek doluzko edo erruzko egintzak egitea, sortzen dituzten kalte eta galerak ibilgailuen aseguru-polizek estaltzen ez dituzten heinean.

II. ZERGADUNAK**2. artikulua**

Ordenantza honetan arautzen den zerbitzua erabiltzeko onartuta dauden eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 34. artikulua aipatzen dituen pertsona fisikoak eta juridikoak zergadunak izango dira eta, hortaz, dagokion prezio publikoa ordaindu beharko dute.

III. ZERGA-OINARRIA**3. artikulua**

Zerga-oinarria zerbitzua benetako edo gutxi gorabeherako kostua da. Horretarako, kontuan hartuko dira zuzeneko zein zeharkako gastuak, bai eta izaera finantzarioa dutenak, ibilgetuaren amortizazio-gastuak, eta hala badagokio, prezio publiko hau sortzen duen zerbitzuak edo jarduerak aurrera egingo duela bermatzeko beharrezko gastuak ere.

IV. PREZIO PUBLIKOAREN KUOTA**4. artikulua**

Ibilgailuak erabili eta mailegatzeagatik ordaindu beharreko prezio publiko —ordenantza honetan arautua— honako kontzeptu hauek osatzen dute:

- Urteko alta-kuota.
- Erabilitako ordu bakoitzaren prezioa.
- Kilometro bakoitzaren prezioa.
- Erabiltzailearen txartela galtzeagatik ordaindu behar izatea.
- Ezustekoa izatekotan frankizia ordaindu behar izatea.

a) Urteko alta-kuota:

Zerbitzuan alta emateagatik ordaindu beharreko urteko kuota 30 eurokoa izango da (gehi une bakoitzean dagokion BEZa), pertsona fisiko zein juridikoentzat.

Kuota hori urte naturalzat hartuko da, altaren data edozein dela ere, eta baja aurreratuak ez du eskubiderik emango zenbatekoak itzultzeko.

Salbuespen gisa, irailtik aurrera gertatzen diren alten zenbatekoak zaitu egingo dira altagatiko kobrantza egiteko, baina hainbanatze hori ez zaio inola ere aplikatuko baja aurreratuari. Ondorioz, erabiltzaileek ez dute urteko prezioaren zati bat berreskuratzeko eskubiderik izango, ordaindutako epe barruan baja ematekotan.

b) Erabilitako ordu bakoitzaren prezioa:

Prezioa ordainduko da ordu bakoitzeko edota orduko zati bakoitzeko, ordu osoan ez erabili arren:



- b.1) Pertsona juridikoak: erabilera-ordu bakoitzaren prezioa 2,50 eurokoa da, gehi une bakoitzean dagokion BEZa.
- b.2) Fisikoak: erabilera-ordu bakoitzaren prezioa 2,10 eurokoa da, Pertsona gehi une bakoitzean dagokion BEZa.
- c) Kilometro bakoitzaren prezioa
Kilometroko, 0,30 euro-ko kostua ezartzen da, gehi une bakoitzean dagokion BEZa, pertsona fisiko zein juridikoentzat.
- d) Erabiltzaile-txartela galdu, apurtu edo txarto erabiltzeagatik, eta baja ematean txartela ez itzultzeagatik ordaindu beharreko kostua 3 eurokoa izango da, gehi une bakoitzean dagokion BEZa.
- e) Ezbehar edo istripu batengatik frankizia ordaindu behar bada:
Gainera, ezbeharretik edo istriputik gasturen bat eratortzen bada, baina aseguruak bere gain hartzen ez badu, erabiltzaileak bere gain hartu beharko ditu gastu horiek.
Ondorioz, erabiltzaileak bere gain hartu beharko ditu ibilgailuaren kalteak konpontzeko gastuak, eta hirugarren pertsonen eta ondasunen eragindako kalte-ordainak, ibilgailuaren aseguruak ordainduko ez balitu, edo polizaren gehienezko aseguru mugak gainditzekotan.

V. HOBARIAK

5. artikulua

Aurreko artikuluan ezartzen den ordu bakoitzaren prezioari (b atalekoari) hoberi hauek aplikatu ahal izango zaizkio:

- a) Egun osoko tarifak
 - b) Pertsona juridikoentzako berariazko hoberia
 - c) Pertsona fisikoentzako berariazko hoberia
 - d) Kanpaina eta sustapen bereziak
 - e) Salbuespenezko egoerak
- a) *Egun osoko tarifak*
Ibilgailua egun osoz (24 ordu) erreserbatzen bada, ordaindu beharreko tarifa 35euro/egunekoa izango da – gehi une bakoitzean dagokion BEZa–, bai pertsona fisikoentzat, bai juridikoentzat.
Nolanahi ere, eta ibilgailua zenbat ordutarako erreserbatzen den alde batera utzita, erabiltzaileei orduko prezio gisa kobratuko zaien gehieneko tarifa ez da 35 euro-tik gorakoa izango eguneko, gehi une bakoitzean dagokion BEZa.
- b) *Pertsona juridikoentzako berariazko hoberia*
Uribe Kostako Mankomunitateko udalei hoberi bat aplikatuko zaie erabilera-ordu bakoitzeko, gehienez ere 10 ordukoa hilean. Nolanahi ere, ibilitako kilometro bakoitzeko prezioa Ordenantza honetan ezarritakoaren arabera ordaindu beharko da.
- c) *Pertsona fisikoentzako berariazko hoberia*
Pertsona fisikoek %50eko hoberia aplikatuko zaie erabilera-ordu bakoitzaren prezioan, baldin eta hileko erreserba osoa 10 ordutik gorakoa bada. Nolanahi ere, ibilitako kilometroen prezioa Ordenantza honetan ezarritakoarekin bat ordaindu beharko da.
- d) *Kanpaina eta sustapen bereziak*
Mankomunitateak eta/edo enpresa esleipendunak egokitzen dituen kanpaina eta sustapen bereziak, SEMS (mugikortasun jasangarriaren Europako astea) edo beste edozein kanpaina edo ekitaldi dela eta, Lehendakariaren ebazpen bidez, sustapen bereziak aplikatu ahal izango dira garraio publikoko zerbitzu horien erabilera sustatzeko, eta, enpresa esleipenduna bada, iragarki publiko bidez egingo du.



e) *Salbuespenezko egoerak*

Salbuespenezko egoerengatik edo aurreikusi gabeko egoerengatik –besteak beste, pandemia batengatik, edo ustekabeko beste edozein egoeragatik–, zerbitzua ezingo baltz erabili, edo, oro har, zerbitzua oso-oso mugatuta balego, Mankomunitateak, Lehendakaritzaren Ebazpen bidez, deskontuak, sustapen bereziak edo zerbitzua etetea ere aplikatu ahal izango ditu.

VI.- SORTZAPENA

6. artikulua

Prezio publikoa ordaindu beharra une hauetan sortzen da:

- Erabiltzaile bezala alta emateagatik prezio publikoa UKANAUTOko erabiltzaile-izaera hartzen denean (altagatiko kuota) sortzen da.
- Erabilera-ordu edo kilometro bakoitzeko prezio publikoa egindako ordu edo kilometro bakoitzaren hasieran sortuko da, likidazioa amaitzean egiteari kalterik egin gabe.
- Txartela galdu edo narriatzearen prezio publikoa txartel berria jaulkitzean sortzen da.
- Estali gabeko ezbeharraren edo frankiziaren mugarainoko ezbeharraren prezio publikoa Ukan Autoren erabiltzailearen erantzukizuna aldarrikatzen denean eta ezbeharra estali ez dela edo frankizia ordaintzeko betebeharra dagoela jakinarazten denean sortzen da.

VII. KUDEAKETA, ERAK ETA ORDAINITZEKO MODUA

7. artikulua

1. Zerbitzua zuzenean Mankomunitateak kudeatu ahal izango du, edo zeharka, zerbitzuen emakidaren kontratu bidez. Lehenengo kasuan, Mankomunitateari dagokio zerbitzuaren sarrerak eta gastuak kudeatzea, eta, bigarren kasuan, emakidadunari dagokio diru-sarrerak kudeatzea, bai eta gastuak kudeatzea ere, dagokion agirian araututakoaren arabera.

2. Altagatiko urteko kuota eskabidea aurkezterakoan ordainduko da, Mankomunitateak edo zerbitzuaren kudeatzaileak horretarako zehazten duen banku-kontuan dirua sartuz, Mankomunitateak edo zerbitzuaren kudeatzaileak dagokion kitapena edo faktura egin beharko dutelarik.

3. Arau orokor gisa, zerbitzua erabiltzeagatik ordaindu beharreko prezio publikoaren (orduak eta kilometroak) likidazioa eta ordainketa hilean behin egingo da, aurreko hilekoan egin den erabilerearen arabera.

Mankomunitateak zerbitzua zuzenean kudeatuz gero, likidazioa, faktura baten baldintzak betez, erabiltzailearen eskura jarri beharko da Mankomunitatearen egoitza elektronikoa edo paperean bidalita, legeriak arautzen duenaren arabera eta subjektu pasibo pertsona juridikoa edo fisikoa den kontuan hartuta.

Halaber, e-mailez bidaliko da, alta-inprimakian jaso beharko den e-mailera.

Zeharkako kudeaketaren kasuan, emakidadunak subjektu pasiboari jakinarazi beharko dio likidazioa posta elektronikoz jasotzen duen faktura, hartu-agiriarekin, eta, hartu-agiria itzultzen ez badu, postaz edo subjektu pasiboari komunikazioa bermatzen dion beste moduren baten bidez bidali beharko dio.

Likidazioa egin ondoren, eta erabiltzaileak alta emateko baimena eman badu, ordainagiri bat igorri ahal izango da alta-formularioan edo ondorengo jakinarazpenetan izendatutako banku-kontuaren aurka.

Salbuespen gisa, likidazioak aldi laburragoetan jaulki ahal izango dira, kobrantzak eraginkorrakoak izateko Mankomunitatearen edo zerbitzuaren kudeatzailearen iritziz beharrezkoa denean.



4. Erabiltzailearen txartel berria egitearen ondoriozko likidazioa, narriaduraren edo galeraren ondoriozkoa denean, txartel berria prestatzean egingo da, faktura-formatuarekin, eta txartelarekin batera jakinaraziko da.

Hala ere, zerbitzua zuzenean kudeatuz gero, eta jakinarazpen elektronikoetara behartuta dauden pertsonen kasuan, likidazioa egoitza elektronikoan eskuratu ahal izango dute, txartela bidaltzeko pareloan.

Zeharkako kudeaketaren kasuan, emakidadunak aldi berean eta modu frogagarrian bidaliko dizkio erabiltzaileari faktore-likidazioa eta jaulkitako txartel berria.

5. Frankiziaren zenbatekoagatik edo aseguru-konpainiak estaltzen ez duen zenbatekoagatik egindako likidazioa Mankomunitateari edo aseguruaren emakidadunari frankizia ordaintzeko eskatzen zaionean egingo da, edo aseguruaren ebazpen bidez jakiten denean aseguruak ez dituela estaltzen eragindako kalte-galerak, estaltzen ez dituen neurrian. Aseguruaren erabakia judizialki aurkaratzen bada, ebazpen judiziala irmo bihurtzean emango da likidazioa.

Likidazioa egin ondoren, erabiltzaileari jakinaraziko zaio, legez dagokionaren arabera, Mankomunitatearen zuzeneko kudeaketaren kasuan, edo posta ziurtatuaren bidez, jaso-agiriarekin, zeharkako kudeaketaren kasuan, hartu-agiridun posta ziurtatuaren bidez.

6. Jaulkitako fakturak edo likidazioak hamar egun balioduneko epean ordaindu beharko dira, jasotzen direnetik edo jakinarazitzat jotzen diren unetik zenbatzen hasita.

8. artikulua

1. Erabiltzaileak ezein kitapen edo faktura ordaintzen ez badu, bolondreski ordaintzeko epea amaitutakoan, berehala etengo da beste erreserba bat egiteko eskubidea, eta baliogabetu egingo da erabiltzaileak berak edo baimendutako gidariak amaitu gabe edo erabiltzen ari den erreserba. Etenarazpen horrek bere hartan jarraituko du harik eta erabiltzaileak bere egoera erregularizatu arte.

2. Ordainagiria ezarritako epearen barruan itzultzen bada edo ordaintzen ez bada, kobrantza kudeatzeko prozedura hasiko da. Prozedura hori jarraian zehazten da.

a) Bolondresko epea:

10 egun igaro ondoren, hasieraz kitapena edo faktura jakinarazi zenetik, erabiltzaileari jakinaraziko zaio, jakinarazpena frogatzen duten bitartekoak erabiliz, zor bat duela, eta 10 laneguneko epe gehigarria emango zaio egoera zigorrik gabe erregularizatzeko. Epe hau amaitutakoan amaitutzat hartuko da bolondreski ordaintzeko epea.

b) Bolondresko epea amaitzearen ondorioak:

1. Bolondreski ordaintzeko epea igarota zorra ordaindu ez bada, automatikoki etenaraziko da erreserba berriak egiteko eskubidea eta automatikoki deuseztatuko dira erabili barik dauden erreserbak.
2. Dará inicio a la vía de apremio, que, en el caso de la gestión indirecta, deberá ser solicitada por la persona concesionaria a la Mancomunidad.

Emakidadunaren eskabidearekin batera, jakinarazpenen egiaztagiriak aurkeztu beharko dira, Mankomunitateak egiazta dezan premiamendu-bideari ekin behar zaiola, eta, ondoren, Mankomunitateak ebazpena emango du edo hura hasteko izapidea egingo du.

c) Premiamendu-bidea:

Premiamendu-bidea Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko, martxoaren 10eko, 2/2005 Foru Arau Orokorraren 167. artikuluan eta hurrengoetan araututakoaren arabera izapidetuko da.

d) Premiamendu-prozeduraren ondorioei kalterik egin gabe eta horiez gain, zerbitzua arautzen duen erregelamenduan jasotako zehapen-ondorioak ere izan ditzake ez ordaintzeak.



Nolanahi ere, erabiltzaileak ezin izango du zerbitzua berriz erabili Mankomunitatearekin daukan zorra guztiz ordaindu arte.

- e) Ez ordaintzeak erabiltzaile bezala altaren bertan behera uztea eragingo du, eta Zerbitzuaren Erregelamenduan arautzen den legez berriz alta emateko debekua eragingo du.

Kasu honetan, erabiltzaileari kontratua azkentzen bazaio, desaktibatu egingo zaio erabiltzailearen profila. Ibilgailuak erabiltzeko baimena kentzea, eta egindako eta/edo gauzatzeke dauden erreserbak baliogabetzea.

Baldin eta erabiltzaileak erreserba-aldian jasotzen badu kontratua etetea edo suntsiaraztea, erreserba amaitzen denean jarriko da indarrean, eta erabiltzaileak ezingo du eskatu indarrean dagoen erreserba-aldia luzatzea.

9. artikulua

Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak kitatu eta bilduko du prezio publikoa.

Hala ere, zerbitzua emateko kontratu bidez kudeatuz gero, emakidadunak egin ahal izango du borondatezko likidazioa eta bilketa.

10. artikulua

Ordenantza honetan adierazitako prezioei une bakoitzeko BEZa aplikatuko zaie, dagokien kasuetan.

VIII. ORDENANTZAREN INDARRALDIA

Ordenantza hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta indarrean jarraituko du harik eta testua aldatu edo indargabetzea erabakitzen den arte.